



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko urriaren 5a

79. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituena 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldiarako. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalen Gizarte Segurantza finantzatzeko. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko, udaletako zinegotzien eta kontzejuetako kideen boto-eskuordetzea ezartze aldera. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen handitu dezan Sarrigurengo ikastetxe publikoa. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza-instalazio publikoei buruzko plan bat aurkez dezan, Sarrigurengo gaur egungo, epe ertaineko eta epe luzeko eskolatzeko-beharrizanei erantzute aldera. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen presta dezan bitartekaritza plan bat, hipoteka ordaindu ezin duten familien etxebizitza-utzarazpenen prebentziorako. Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskura dituen bide guztiak erabil ditzan Tabako-produktuak ekoizteari, aurkezteari eta saltzeari buruzko Europako Batzordearen 2001/37/CEE Zuzentarauaren aldaketa geldiarazteko. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nekazaritza Ministerioari exiji diezaion esnearen sektorearen defentsa-estrategia bat abian jartzeko Europar Batasunaren aurrean. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2012ko martxoaren 22an onetsitako zenbait foru agindu atzera bota ditzan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pertsona guztientzat ziurta dezan GIBaren probak egiteko aukera. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun arloan lanaldi-luzapena aplikatzearekin zerikusia duen orotan kontuan har ditzan esparru bakoitzaren ezaugarriak. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren aldaketak egin ditzan enpresa publikoetako kudeatzaile eta zuzendaritza-karguen soldata-masaren zati aldakorrean. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da programa bat gara dezan, departamentu desberdinetan bete diren planen emaitzak ebaluatzeko. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da heldu den Kulturako Konferentzia Sektorialean autonomia erkidegoez gairako programa bat proposa dezan, 2012-2015 urteetarako Kultura Plan Estrategiko Orokorraren barruan, Espainiako gaztelu eta gotorlekuen ibilbideak lotu, zabaldu eta turistiko-ki bultzatze aldera. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (18. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Sarrigurengo ikastetxe publikoaren saturazioari buruzkoa, Pedro Rascón Macías jaunak egin (19. or.).
- Galdera, irratidifusio soinudunaren ikus-entzunezko komunikazio zerbitzua emateko lizentziak banatzeko epea luzatu izanari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egin (19. or.).
- Galdera, Ledeako zubian ibilgailu astunak igaro ahal izateko errehabilitazio-lanak amaitu arte aurreikusita dagoen jarduketa-egutegiari buruzkoa, Koldo Amezketa Díaz jaunak egin (20. or.).
- Galdera, Prestazio Handiko Trenaren zerbitzua “behar” duten Nafarroako enpresei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (21. or.).
- Galdera, Nafarroan izandako zirkulazio istripu kopuruari buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egin (21. or.).
- Galdera, TRENASak aurkeztutako enplegu-erregulazioko espedientea, 58 lanpostu deuseztatzekoa, saiheste aldera Nafarroako Gobernuak CAF taldearen aurrean eginen dituen jarduketari buruzkoa, José Miguel Nuin Moreno jaunak egin (22. or.).
- Galdera, Espainiako Estatuko abiadura handiko plataformen bidezko salgai-garraioari buruzkoa, Koldo Amezketa Díaz jaunak egin (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2012ko urriaren 8ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege

proiektua 2012ko ekainaren 8ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Foru Lege proiektu honi zuzenketak aurkezteko epea **2012ko urriaren 26ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea: "Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelu-

len Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena". Aipatu foru lege proiektua 2012ko ekainaren 29ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Foru Lege proiektu honi zuzenketak aurkezteko epea **2012ko urriaren 8ko eguerdiko hamaiak arte** luzatzea: "Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen

2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako". Aipatu foru lege proiektua 2012ko irailaren 7ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalen Gizarte Segurantza finantzatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalen Gizarte Segurantza finantzatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERA-BAKIA:

1. Agintzea mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalen Gizarte Segurantza finantzatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru Lege proposamena irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru lege proposamena, mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalen Gizarte Segurantza finantzatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak aurrerapauso handia ekarri zuen Espainiako gizarte-babesaren arloan.

Halere, mendekotasuna artatzeko sistema bere heldutasunera iritsi behar zenean –bost urte baino gehiago igaro dira legea onetsi zenez geroztik–, hondatze-prozesu nabarmena ari da pairatzen, eta arriskua dago porrot egin dezaten urte hauetan sortu dituen itxaropenek eta potentzialak, mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntzari eta enplegu-sorrerari dagokienez.

Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak jasotzen dituen neurriek Mendekotasuna Artatzeko Sistema arian arian eraistera jotzen dute. Guri dagokigunez, zortzigarren xedapen gehigarriak hitzarmen berezien araubidea aldatzen du, mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalen Gizarte Segurantzaren Sistemari, zeina maiatzaren 11ko 615/2007 Errege Dekretu bidez arautzen baita. Orain arte, bere 4.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, Banakako Laguntza Programan zaintzaile izendatzen direnen Gizarte Segurantzaren kotizazioa Estatuko Administrazio Orokorrak bere gain hartzen zuen zuzenean, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrarekiko hitzarmen bidez. Aipatu errege lege dekretua onetsi zenez geroztik, berriz, zaintzaile ez-profesionalentzako hitzarmen bereziak izaera boluntarioa dauka, eta kotizazioak hartzailearen kargura egiten dira oso-osorik.

Neurri horrek, zeinak babesgabetasun larria baitakarkie zaintzaileei –eta, ondorioz, mendeko-

tasun egoeran dauden pertsonen, 1.600 pertsona inguru ukitzen ditu Nafarroan. Egoera hori arintze aldera, foru lege proposamen honek bilatzen du mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalek Gizarte Segurantzaren araubideari atxikirik jarraitu ahal izatea, eta Foru Komunitateko Administrazioak bere gain hartzea uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretua indarrean sartu arte Estatuko Administrazio Orokoraren kargura zeuden kuoten ordainketa.

Artikulu bakarra.

Nafarroako Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea aldatzen da, hamaikagarren xedapen gehigarria gehitzearen. Hona testua:

“Hamaikagarren xedapen gehigarria. Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalek Gizarte Segurantzako kotizazioak.

Foru Komunitateko Administrazioak finantzatu-ko ditu mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalek Gizarte Segurantzako hitzarmen berezietan dagozkien kotizazioak. Horretarako, behar diren aurrekontu-kontusailak gaituko dira Nafarroako Aurrekontu Orokorretan”

Azken xedapena.

Foru lege honek 2013ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa, udaletako zinegotzien eta kontzejuetako kideen boto-eskuordetzea ezartze aldera.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2012ko irailaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea udaletako zinegotzien eta kontzejuetako kideen boto-eskuordetzea ezartze aldera Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena. Proposamen hori Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztu eta 2012ko ekainaren 15eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Udaletako zinegotzien eta kontzejuetako kideen boto-eskuordetzea ezartze aldera Nafarro-

ako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2012ko urriaren 30eko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen handitu dezan Sarrigurengo ikastetxe publikoa.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehenbailehen handitu dezan Sarrigurengo ikastetxe publikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Sarrigurengo ikastetxe publikora doazen neska-mutikoen gurasoak ikastetxearen saturazioa eta jarduerak egiteko espazio-mugapena ari dira salatzen.

2012-2013 ikasturtean 743 haur daude matrikulatuta Sarrigurengo ikastetxe publikoan. Aurreikuspenen arabera, heldu den urtean 900 inguru izanen dira, eta hurrengoan 1.100 inguru.

Ikastetxe publikoko familien arabera, honakoa da egoera:

- Gaur egun dagoen ikasgela-kopuruarekin ezin izanen dira 2013-2014 ikasturterako aurreikusitako ikasle guztiak hartu.

- Jantokia ez da bideragarria izanen, gaur saturatuta dagoelako jada.

- Hau Hezkuntzako ikasleek ezin izanen dute saiorik egin psikomotrizitate gelan.

- Gimnasioan ez dago behar beste tokirik ikasle guztiak Gorputz Hezkuntzako eskolak hartzeko.

- Ordenagailu gela astean behin bakarrik erabil daiteke.

- Irakasle-kopurua igotzearen ondorioz, espazio-arazoak daude irakasle gelan eta klaustroaren bilerak egiteko.

- Erabilera anitzeko gelan ezin da jarduerarik egin familiekin eta ikasleekin batera, ez dagoelako behar beste tokirik.

- 2013-2014 ikasturtetik aitzina ez da espazio fisikorik egonen hizkuntza eta espezialitate gela, arlo horiek irakasteko.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du premia handi dezan Sarrigurengo ikastetxe publikoa; izan ere, Eguesibarren hazkunde demografikoari buruzko aurreikuspenen arabera, 2013-2014 ikasturtean ez da egonen eskariari aurre egiteko adina ikasposturik.

Iruñean, 2012ko irailaren 21ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza-instalazio publikoei buruzko plan bat aurkez dezan, Sarrigurengo gaur egungo, epe ertaineko eta epe luzeko eskolatzeko-beharrizanei erantzute aldera.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hezkuntza-instalazio publikoei buruzko plan bat aurkez dezan, Sarrigurengo gaur egungo, epe ertaineko eta epe luzeko eskolatzeko-beharrizanei erantzute aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Sarrigurengo populazioaren azken hamar urte-etako hazkundeak eta aurreikusita dagoen bilakaerak agertzera ematen dute gaur egungo hezkuntza publikoaren egiturak eta eskaintza handitzeko premia.

Gaur den egunean, agerikoa da ikastetxe publikoa ez dela gauza eskolatzeko eskariari erantzun egokia emateko. Datorren ikasturterako eskaintza publikoa ez da nahikoa izanen, eta gaur egun azpiegiturak ez dira nahikoak, eta etorkizunean ere ez dira izanen.

0-3 urteko ikasleentzako ikaspostu publikoek ez dute betetzen ezta eskariaren herena ere. Sarrigurenen bizi diren hamarnaka familiak ez dute lortu beren seme-alabentzat eskatzen zuten ikaspostua, eta, horrenbestez, eskaintza pribatura jo behar izan dute, nahiz eta batzuetan hura ezin ordaindu.

Haur eta lehen irakaskuntzarako ikaspostu publikoek ikastetxe publikoaren egitura-ahalbideak gainditzeko dituzte; eta une honetara arte hartutako konponbideak, bestelako espazio eta jarduerak sakrifikatzeak, ez dira nahikoak izanen etorkizun hurbilean.

Bigarren hezkuntzako derrigorrezko mailetako eta derrigorrezkoak ez diren mailetako ikasleek beste toki batzuetara jo behar izaten dute, baina horiek ere saturatuta daude.

Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu zuen egoera horri konponbidea emateko, Sarrigurengo udalez gaindiko proiektu sektorialaren bitartez, eta 2007rako aurrekusi zuen 0-3 urteko hiru ikastetxe egotea, lehen hezkuntzako bi ikastetxe egotea (950na ikasposturekin) eta bigarren hezkuntzako ikastetxe bat egotea.

Egungo errealitatea da Sarrigurenerako aurreikusitako hazkundera espero zena izan dela, eta aurrekusi eta eraiki diren etxebizitza gehienak bete egin direla. Bitartean, ordea, eskola-azpiegiturretan adabakiak jarri dira. Izan ere, ikastetxe publikoa eraiki zen 500 ikasle hartzeko, baina gaur den egunean 700 haur hartzen ditu.

Egoera horrek berarekin dakar jantokiak txandaka lan egitea, ikastaldea ezin bikoiztea, tailerak ezin egitea, psikomotrizitate gela ezin erabiltzea, irakasleek eta gainerako erabiltzaileek biltzeko tokirik ez izatea. Datorren ikasturtean, egoerak okerrera egingen du, eta ezinezkoa izanen da Sarrigurenen hezkuntza publikoaren eskariaren ehuneko ehun hartzea.

Hezkuntza Departamentuaren jarduketek arriskuan jartzen dute ikastetxe publikoaren bai kalitatea, bai irudia, eta horrek eragin negatiboak izan ditzake, zeren eta gerta baitaiteke eskariak behera egitea eta gurasoek beste ikastetxe batzuk nahia-igo izatea, pribatuak zein publikoak, Sarrigurendik kanpo. Egitate objektibo bat da arazo hauek ezinegon handia eragiten ari direla ikastetxe publikoaren hezkuntza erkidegoan, eta gabeziak eragiten dituztela, era berean, zerbitzu batzuetan: jantokia, haurtzaindegia, jolastokien zaintza eta abar.

Nafarroako Gobernuaren lehentasunak izan behar luke eta da hezkuntza publikoaren kalitatea,

eta segurtatzea Sarrigurenen bizi diren 12.000 pertsona baino gehiagok –Nafarroako jaiotza tasa handienetako batekin, bide batez– aukera izan dezatela kalitatezko hezkuntza publikoa hautatzeko. Bada, horrek berarekin dakar bertan behar diren hezkuntza baliabide publikoak jartzea.

Hori dela-eta, ondoko erabaki-proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean hezkuntza dotazio publikoen plan bat aurkez dezan –azpiegiturak eta baliabideak eraikitzeari dagokionez– gaur egun dauden eta epe ertain eta luzean egonen diren eskolatzeko-premiei erantzuteko, Sarrigurengo herrian, eskola-adinean dagoen biztanleriaren premien arabera eta Sarrigurengo udalez gaindiko proiektu sektorialean jasotako dotazio-konpromisoen arabera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Sarrigurengo ikastetxe publiko batean haur eta lehen hezkuntzako ikaspostu bat segurta diezaien halakorik eskatzen duten ikasle edo familia guztiei. Datorren ikasturterako eta hurrengoetarako.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bi urteko epean behar diren ekintzak gauzatu ditzan, zertarako eta, pixkanaka, bi urte horietan, erantzuna emate aldera 0-3 urteko ikasleak Sarrigurenen eta ikastetxe publiko batean eskolatzeko eskari guztiei.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Sarrigurenen bigarren hezkuntzako ikastetxe bat eraiki dezan, bertan derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta batxilergoko irakaskuntzak eskaintzeko.

Iruñean, 2012ko irailaren 24an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen presta dezan bitartekaritza plan bat, hipoteka ordaindu ezin duten familien etxebizitza-utzarazpenen prebentziorako.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehenbailehen presta dezan bitartekaritza plan bat, hipoteka ordaindu ezin duten familien etxebizitza-utzarazpenen prebentziorako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Sustapen Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko kide Txema Mauleón Echeverría jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Sustapen eta Etxebizitza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin. Mozioaren bidez, bitartekaritza plan bat sortzea eskatzen da, zailtasun ekonomikoko egoeran dauden familien etxebizitza-utzarazpenen prebentziorako.

2007tik 2011ko hirugarren hiruhilekora bitartean, Espainiako Estatuan exekuzio hipotekarioko 328.687 prozedura izan dira. Lau urtean, 2008tik 2011ko hirugarren hiruhilekora arte, 151.369 utzarazpen prozesu izan dira, jarduera finantzarioengatik premiatutako exekuzio hipotekarioko prozesuen ondorioz. Nafarroaren kasuan, 2.500 familia nafar baino gehiago dira egoera horretan suertatu direnak, 2007an krisialdi ekonomikoa hasi zenetik.

Hau gertatzen denean, familiak, beren etxebizitzaren galerari ez ezik, biziarteko finantza-zigor bati ere aurre egin beharrean aurkitzen dira: banku-entitateak demanda bat aurkezten du eta exekuzio hipotekarioko prozesuari hasiera ematen zaio, eta prozesu horren amaiera higiezin enkan-tean jartzea da. Enkantea eman gabe geratzen bada (eta hori, egungo krisialdiaren testuinguruan, kasuen % 90an baino gehiagotan gertatzen da), banku-entitateak, egungo legedia eskutan, etxebizitza bereganatzen du tasazio-balioaren % 60 ordainduta (azken lege-aldaketaren ondoren), eta gelditzen den zorraren ordainketa –gehi interesak eta epaiketa-kostuak– erreklamatzeko jarraitzen die kaudimengabezia dauden pertsonen, nominak, kontuak eta abarrekoak bahituz, eta abal-emaileei ere bahiturak egitera ere jotzen du. Hau da, etxebizitza galtzeaz gainera, milaka familiak biziarteko zigor finantzario bati egin behar izaten diote aurre, eta horrek beste zigor bat badakar berekin: bazterketa soziala eta ezkutuko ekonomia.

Finantza-entitateek etxebizitzak tasazio-balioaren % 60 ordainduta lortzea bideratzen duen legedia hau, anomaloa eta gure inguruko beste herrialdeetako legedietan konparazio gabekoa izateaz gainera, familientzat ezezaguna zen hipoteka-kontratuak izenpetu zituztenean. Horri, gainera, honakoak gehitu behar zaizkio: hipoteka horietatik gehienak merkaturatzeko garaian erabili zen publikitate engainagarria, tasazioak balioaz gaineoak izatea, eta kontratuetan erabilitako hizkera zaila, zeinak, orain aurkitu denaren arabera, gisa guztietako abusuzko klausulak ezkututzen baitzituen; esate baterako, zoru-klausulak.

Onartezintzat eta guztiz zuzengabetzat jotzen dugu zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko batean, krisiaren ondorio guztiak hipoteka-kontratu alderek ahulenarentzat izatea, eta finantza-entitateek, bitartean, nahiz eta, neurri handi batean, egungo krisiaren erantzuleak izan, zergetatik ateratzen diren milioitako laguntzak jasotzea, beren gain inongo erantzukizunik hartu gabe, eta aldi berean, urtean milaka milioiko onurak sortzen jarraitzea.

Hemen azaldutako guztiak egungo esparru juridikoaren espirituaren aurka jotzen du, zeren eta etxebizitzarako eskubidea Konstituzioaren agindu bat baita, bereziki jasota datorrena Konstituzioko 47. artikuluan.

Berriki, Ministroen Kontseiluak jokabide egokiaren kode bat onetsi du. Kode hori, norainokoari

dagokionez mugatua izateaz gainera, ez da nahitaez betetzekoa finantza entitateentzat, eta ez du, ezta ere, legedia aldarazten kaltetuen elkarrekin eskatzen ari diren gai gakoetan.

Halaber, nabarmendu nahi dugu autonomia erkidego batzuk neurriak hartzen ari direla, beren eskumenen esparruan, familien etxebizitza-utzarazpenak saihesteari begira. Esate baterako, Eusko Jaurlaritzaren bitartekaritza-plan bat taxutzen ari da, eta horretarako, lan batzorde bat sortu du gobernu horretako etxebizitza eta justizia arloekin, finantza entitateekin, botere judizialeko ordezkariekin eta kaltetuen plataformekin, etxebizitza-utzarazpenei aurrea hartzeko eta bestelako aholku-neurriak hartzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzea presaz bitartekaritza plan bat egin dezan, beren egoera ekonomikoaren ondorioz hipotekaren ordainketari aurre egin ezinik dauden familien etxebizitza-utzarazpenei aurrea hartzeko.

2. Nafarroako Gobernuak premiatzea batzorde misto berezi bat sor dezan. Batzorde horretan honakoek hartuko dute parte: gobernuko ordezkariak, finantza entitateak, kaltetuen elkarrekin, kaudimengabeziako egoera ustekabekoan edo nahi gabekoan dauden familien utzarazpenekin lotutako arazoak ezagutzen dituzten bestelako erakunde sozialak eta justizia administrazioko ordezkariak. Batzorde horren helburu nagusia da aztertzea zein neurri hartu behar diren utzarazpenak saihesteko, bai eta haiei aurrea hartzeko ere, edo, bestela, kaltetutako familiei ostatu duina eman dakien bermatzea, etxebizitza sozialen programak indartuz.

3. Nafarroako Gobernuak premiatzea administrazio guztiekin batera lan egin dezan, estatukoa nahiz udaletakoak, behar diren neurriak erabaki eta adoste aldera ustekabeko kaudimengabezia-egoeran eta nahi gabekoan dauden familien etxebizitza-utzarazpenak saihesteko eta familia horiek ostatua izateko aukerak eskaintzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak bere babesera erakutsi nahi dio Hipotekak Kaltetutakoen Plataformak bultzatu duen legegintzako herri-ekimenari.

Iruñean, 2012ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskura dituen bide guztiak erabil ditzan Tabako-produktuak ekoizteari, aurkezteari eta saltzeari buruzko Europako Batzordearen 2001/37/CEE Zuzentarauaren aldaketa geldiarazteko.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eskura dituen bide guztiak erabil ditzan Tabako-produktuak ekoizteari, aurkezteari eta saltzeari buruzko Europako Batzordearen 2001/37/CEE Zuzentarauaren aldaketa geldiarazteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko eledun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko

mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Berriki jakin dugu Europako Batzordea lanean ari dela Tabako produktuak fabrikatu, aurkeztu eta saltzeari buruzko 2001/37/CE Zuzentarauaren aldaketa bat egiteko. Aldaketa horren eragin ekonomikoa eta enplegu-arlokoa suntsigarria izan daiteke gure erkidegoan.

Kontuan izanda zirriborro fasean gaudela, uste dugu garaiz gaudela zalantzarik gabe aurrekaririk gabeko akats bat izanen litzatekeena gerarazteko.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere eskura dituen bide guztiak presaz erabil ditzan, gure ekonomian eta foru erkidegoko enpleguan eragin oso negatiboa izanen lukeen araudi hori gerarazteko.

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du irmoa izan dadin 2001/37/CE Zuzentarauaren aldaketaren zirriborroa errefusatzeko garaian, gure herrialdearen interesen aurkako baita.

Iruñean, 2012ko irailaren 24an

Eleduna: Roberto Jiménez Allik

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nekazaritza Ministerioari exiji diezaion esnearen sektorearen defentsa-estrategia bat abian jartzeko Europar Batasunaren aurrean.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nekazaritza Ministerioari exiji diezaion esnearen sektorearen defentsa-estrategia bat abian jartzeko Europar Batasunaren aurrean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako eta Espainiako esne-sektorea krisi larrian dago, produktuaren salmenta-prezioengatik, pentsuen prezioaren igoerarengatik eta beste herrialde batzuetako esnearen salmentarengatik.

Nazioan, 200.000 lanpostu inguru dira, eta produkzioaren balioa, berriz, 8.000.000 eurokoa.

Espainia bilakatzen ari da Frantzia eta Alemania bezalako herrialdeek ekoizten duten esnearen estolda-zuloa, eta merkataritza kate handiek esne hori erakargarri gisa erabiltzen dute, galerekin ere salduz edo Espainiakoa ez den esnea erabiliz.

Industriaren eta abeltzainaren arteko bitartekariaren figura sortzea, abusuzko praktikak saihesteko, oso ere garrantzitsua izanen litzateke sektorearen bideragarritasunerako. Auzoko herrialdea dugu horren adibidea.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea Nekazaritza Ministerioari exiji diezaion Europar Batasunaren aurrean estrategia bat garatzea sektorearen defentsan, esne-kuota handiagoa eta babes-neurriak exijituz.

2. Zuzeneko laguntzen plan bat onestea, esnea ekoizten duten abeltzainek pairatzen ari diren ekoizpen-galera konpentsa dezaten.

3. Behar diren egiturazko neurri guztiak aztertu eta hartzea, abeltzaintza ustategien itxiera eragozteko.

Hori jakinarazten da behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2012ko irailaren 24an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2012ko martxoaren 22an onetsitako zenbait foru agindu atzera bota ditzan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2012ko martxoaren 22an onetsitako zenbait foru agindu atzera bota ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, dagokion batzordean eztabaidatu eta bozka dadin. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait foru aginduren edukia atzera bota dezan.

2012ko irailaren 14ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariaren hiru foru agindu argitaratu ziren, indarrrik gabe uzteko ondoko deialdiak:

1.- Abuztuaren 17ko 68E/2012 Foru Agindua, eraginik gabe uzten duena Nafarroako udalentsako laguntzaren deialdia, 2012ko urtean jarduketa artistiko eta kulturalak batera antolatzekoa. Deialdi hori martxoaren 21eko 38E/2012 Foru Aginduaren bidez onetsi zen. Liberatutako gastua 107.000 eurokoa da.

2.- Abuztuaren 17ko 69E/2012 Foru Agindua, eraginik gabe uzten duena 2012ko Nafarroako Antzokien Sarearen diru-laguntzen deialdia. Deialdi hori martxoaren 22ko 41E/2012 Foru Aginduaren bidez onetsi zen. Liberatutako gastua 471.000 eurokoa da.

3.- Abuztuaren 17ko 70E/2012 Foru Agindua, eraginik gabe uzten duena Nafarroako udalentsako diru-laguntzen deialdia, "Artea eta Kultura" programa osatzen duten kultur jarduerak egitekoa. Deialdi hori martxoaren 22ko 40E/2012 Foru Aginduaren bidez onetsi zen. Liberatutako gastua 247.000 eurokoa da.

Hasiera batez aurreikusitako programak kentzeak edo esleitutako diru-kopuruak murrizteak agerian uzten dute, berez, Gobernuaren kultur politika, baina jada egindako deialdiak indarrrik gabe uztea jauzi kualitatibo negatibo bat da, Foru Komunitateko Administrazioaren historian zehar aurrekaririk ez duena.

Bestalde, deialdi horietan jasotako jardueren zati handi bat jada burutu da, eta, horrenbestez, administrazioen bat arduratu beharko da haiek ordaintzeaz. Udal Administrazioa denez zuzenean kontratatzailea dena, nahiz eta kontratua deialdi jakin baten babesean egin, ondoriozta daiteke administrazio hori seinlatu behar dela zuzeneko arduradun gisa. Alabaina, mundu guztiak daki, eta Foru Administrazioak beste inork baino hobeki, zein den udal diru-kutxen egoera, eta nolako ezintasuna duten aurreikusi gabeko ordainketa gehigarriei aurre egiteko.

Litekeena da ordainketa 2013ra geroratu nahi izatea, baina hori ez da arazoari konponbidea ematea, baizik eta, de facto, heldu den urtean kulturaren arlorako egon daitezkeen diru-kopuruak gutxitzea.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez dagoela ados Nafarroako Gobernuak arlo honetan izan duen jokabidearekin, zeren eta, neurri batean, segurtasun juridiko eza txertatzen baitu administrazioen jokabidean, eta horrek larriki kaltetzen du gai publikoen kudeaketa egoki eta eraginkorra.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurrez aipatu ditugun foru aginduen edukia atzera bota dezan eta deialdi horiek aurtengo martxoaren 22an onetsitako aginduetan ezarritakoaren arabera ebatz ditzan.

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pertsona guztientzat ziurta dezan GIBaren probak egiteko aukera.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita pertsona guztientzat ziurta dezan GIBaren probak egiteko aukera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Apirilaren 20ko 12/2012 Errege Lege Dekretuak funtsezko helburu gisa ezartzen du Osasun Sistema Nazionalaren egituraren erreforma egitea, hari kaudimena eta bideragarritasuna emanaz eta hura denboran iraunkor egiteko kohesio neurriak indartuz.

12/2012 Errege Lege Dekretuko 3.ter artikulua zehazten du erregistraturik ez dauden eta Espainian egoiliar izateko baimendurik ez dauden atzeritarrek osasun laguntza jasoko dutela honako modalitate hauetan:

a) Larrialdikoa, gaixotasun larri nahiz istripu baten ondoriozkoa, edozein dela ere haren arazoia, harik eta senda-agiria lortzeko egoerara arte.

b) Haurdunaldian, erditzean eta erditzearen ondoren laguntza jasotzekoa.

Hala eta guztiz ere, giza immunoeskasiaren birusaren (GIB) ondoriozko infekzioaren kasu zehatzean, hedapen pandemikoko gaixotasun kutsagarria denez eta tratamendurik gabe heriotza dakarrenez, populazioaren zati bat diagnosis egi-

tetik eta tratamendua jasotzetik kanpo uzteak desio denaz besteko eragin bat sor dezake.

Aseguratu izaera galdu eta GIBak kutsatuta dauden pertsonentzako ondorio medikoez haratago (heriotza-tasa handitzea eta infekzioaren ondoriozko konplikazioen eragina), konplikazio larriek eragindako larrialdiko arretaren eskariaren nahiz ospitaleratze luze eta errepikakorren hazkundeak ekartzen duten gastuak gora egin dezake. Bada, konplikazio larri horiek guztiak ia desagertu egin ziren erretrobirusen kontrako tratamendu konbinatuen eraginkortasuna zela eta.

Gainera, gaur egun nazioarteko zientzialariak ados daude GIBak kutsatutako pertsonen tratamenduaren inguruan, hain zuzen ere jotzen baitute tratamendua neurri garrantzitsuena dela maila globaleko epidemiari aurrea hartzeko eta epidemia hori kontrolatzeko. GIBak kutsatuta egon eta ez diagnosirik ez tratamendurik ez duen biztanleriaren azpitalde bat egoteak areagotu egiten ditu GIB infekzioaren transmisio-tasak, immigranteen artean ez ezik, bertako populazioan ere, eta horrek zailtasunak ekarriko ditu epidemia gure herrialdean kontrolatzeko. Kutsatutako pertsonen kopuruak gora egiteak, halaber, gailentzen ditu ekarriko dio sistemari, eta auzitan jarriko du haren epe ertaineko eta epe luzeko bideragarritasuna.

Gaur egun, GIBaren epidemia kontrolatzea gure herrialdeak izenpetutako nazioarteko ituntan aitortutako lehentasun mundial bat da, eta Nazio Batuek sustatutako Milurtekoaren Garapen Helburuetan era sartzen da behar duten pertsona guztiek GIB/hiesaren tratamendua jaso ahal izatea.

Espainiako Konstituzioak, 43. artikuluan, osasun babeserako eskubidea aitortzen du, eta orobat ezartzen du botere publikoei dagokiela, prebentzioko neurrien eta beharrezkoak diren zerbitzu eta prestazioen bidez, osasun publikoa antolatu eta zaintzea.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berma dezan GIBaren infekzioari buruzko proba diagnostikoetarako sarbidea unibertsala izanena dela.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berma dezan GIBaz kutsatuta dauden eta gure herrialdean bizi diren

pertsona guztiek osasun laguntza eta tratamendurako sarbidea izanen dutela (edozein dela ere haien aseguratu izaera).

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun arloan lanaldi-luzapena aplikatzearekin zerikusia duen orotan kontuan har ditzan esparru bakoitzaren ezaugarriak.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osasun arloan lanaldi-luzapena aplikatzearekin zerikusia duen orotan kontuan har ditzan esparru bakoitzaren ezaugarriak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lanaldiaren luzapenak osasunaren esparruan ukitutako arlo eta zentroei bidea eman diezaien beren burua antolatzeko eta kudeatzeko, herritarrei ematen zaien zerbitzua optimizatze aldera.

Berriki jakin dugu lanaldiaren luzapenaren aplikazioak oinarri berak edukiko dituela zentro guztietan, dela ospitaleetan, dela kontsulta espezializatuetan, dela hiri zein landa esparruetako laguntzan. Jakin dugu, halaber, neurriak eragina izanen duela bai sendagileengan, bai erizainengan, bai administrazioko langileengan ere.

Gure ustez formula horrek –kafea denontzat– ez du balio, eta arlo eta kolektibo profesional bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak honako erabaki-proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozka dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du osasunaren arloko lanaldiaren luzapena aplikatzearekin lotutako guztian, kontuan har ditzan esparru bakoitzaren berezitasunak, bai eta laguntza-zentro bakoitzaren berezitasunak ere, halako moduz non aukera emanen baitu horietako bakoitzak lanaldiaren luzapena antolatu ahal dezan bere ustez herritarrei zerbitzu eta arreta onena emateko moduan, hau da, bakoitzak bere baliabide eta ezaugarriak ahal den erarik onenean optimizatze moduan, antolamenduzko erabaki hori bere kudeaketa planetan integratuz.

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren aldaketak egin ditzan enpresa publikoetako kudeatzaile eta zuzendaritza-karguen soldata-masaren zati aldakorrean.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren aldaketak egin ditzan enpresa publikoetako kudeatzaile eta zuzendaritza-karguen soldata-masaren zati aldakorrean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Urte hasieran, Nafarroako Gobernuak enpresa publikoetako kudeatzaile eta goi-zuzendarien sol-

datak ezarri zituen. Soldata horiek ezarri ziren, enpresetako bakoitza kokatzeko egin zen A, B, C eta D mailen banaketaren arabera.

Lansarien tauletan, bi kontzeptu ezarri ziren: lanariaren atal finkoa, 55.000 eta 77.000 euro artekoa, enpresaren arabera; eta atal aldagarria, ehuneko 15 eta 50aren artekoa, ezarritako helburuen betetze-mailaren arabera.

Lansarien taula horiek indarrean daude eta aplikatzen ari dira, eta, aldi berean, enpresetan eta haien langileengan doikuntza-neurri batzuk ere aplikatu dira.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren aldaketak sar ditzan enpresa publikoetako gerente eta goi-kargudunen lansarietako multzoaren atal aldagarrian, halako moduz non atal horren kobrantza ordainduko den soilik ezarritako helburuak betetzen diren kasuetan, betiere horretarako enpresaren barruan lansarien, plantillaren edo lan-baldintzen murrizketarik aplikatu ez denean. Halaber, ordainketa hori eginen da baldintza horiek egiaztatzeko modukoak direnean.

Iruñean, 2012ko irailaren 27an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da programa bat gara dezan, departamentu desberdinetan bete diren planen emaitzak ebaluatzeko.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita programa bat gara dezan, departamentu desberdinetan bete diren planen emaitzak ebaluatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez, lortu nahi da azter daitezela Nafarroako Gobernuak garatzen dituen planen emaitzak.

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko irailaren 13an eginiko bilkuran, gehiengo zabal batez onetsi zuen PPK aurkeztutako mozio bat, bideragarritasun planak sartzeko 2013-2016 urteetarako inbertsio plan berriko proiektuetan.

Horrelako azterlanak egitea beharrezkoa den jokabide bat da –eta horrelaxe ulertu zuten parlamentu-taldeek– Administrazioaren jarduketak modu egokiagoan planifikatzeko eta funts publikoak zorrotz erabiltzeko, dotazioena eta azpiegiturena bezalako esparru garrantzitsu batean.

Bi irizpide horiek modu berean aplikatu daitezke a posteriori, hau da, behin entitateek jarduketa desberdinak bete dituztenean. Betetako ekimenen ebaluazioa, era berean, botere publikoen erantzukizun-ariketa bat da.

Nafarroako Gobernuak, departamentuen bitartez, bere eskumenen garapena bideratu ohi du zenbait jarduketa plan bultzatzearen bitartez. Alabaina, orokorrean, lortutako emaitzak ez dira ebaluatzen. Erdietsitako betetze maila baloratzeaz gainera, ebaluazio hori baliagarri gerta daiteke, era berean, programei jarraitutasuna emateko edo programa batzuk aldatzeko, planei jarraipena ematen zaien kasuetan.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak honakoak egitera premiatzen du:

1. Programa bat garatzea departamentu desberdinetan bete diren planen emaitzak ebaluatzeko.

2. Foru araudian planak sartzeko ebaluatzeko betebeharra.

Iruñean, 2012ko irailaren 27an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da heldu den Kulturako Konferentzia Sektorialean autonomia erkidegoez gaindiko programa bat proposa dezan, 2012-2015 urteetarako Kultura Plan Estrategiko Orokorraren barruan, Espainiako gaztelu eta gotorlekuen ibilbideak lotu, zabaldu eta turistikoki bultzatze aldera.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita heldu den Kulturako Konferentzia Sektorialean autonomia erkidegoez gaindiko programa bat proposa dezan, 2012-2015 urteetarako Kultura Plan Estrategiko Orokorraren barruan, Espainiako gaztelu eta gotorlekuen ibilbideak lotu, zabaldu eta turistikoki bultzatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da heldu den Kulturako Konferentzia Sektorialean, eta 2012-2015 urteetarako Kulturaren Plan Estrategiko Orokorraren esparruan, autonomia erkidegoez gaindiko programa bat proposa dezan, Espainiako gaztelu eta gotorlekuen bideak elkarrekin lotu eta turistikoki zabaldu eta bultzatze aldera.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak 2012-2015 urteetarako Kulturaren Plan Estrategiko Orokorra prestatu du. Joan den irailaren 12an, Kulturako estatu idazkari José María Lasalle jaunak estrategia hori ezagutzera eman zuen Diputatuen Kongresuko Kultura Batzordean.

Planaren helburuetako bat da administrazio publikoaren eta bestelako erakundearen arteko komunikazioa eta kultur lankidetzako tresnak bultzatzea, gar-

dentasunez, kultur baliabideen erabilera efiziente eta arrazionala bultzatze aldera. Estrategia horrekin, arrazionalizatu nahi da Ministerioak autonomia erkidegoekin eta udalbatzekin kultur proiektuen inguruan duen lankidetzak. Ministerioak, Kulturako Konferentzia Sektorialaren esparruan, autonomia erkidegoez gaindiko jardura-programa bateratuak taxutuko ditu, Estatuko eta autonomia erkidegoetako sektore publikoko beste eragile batzuen laguntzarekin.

Ministerioaren proiektu hori garatuko duen Kulturako Konferentzia Sektorialeko kidea da Nafarroako Gobernuak Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetarako Departamentua. Udaberriean, Nafarroako Gobernuak "Gaztelu eta Gotorlekuen Bidea" jarri zuen abian. Gotorlekuen ondarearen bidez Nafarroaren historia eta Foru Komunitateko hermeretzi txoko ezagutzeko aukera ematen du bide horrek. Programaren arrakasta dela eta, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, ekainaren 5ean, onetsi zuen udako hilabeteetan programari eustea.

Beste erkidego eta hiri batzuetan Nafarroako Gobernuak bultzatutakoaren antzeko bide batzuk badaude; esate baterako, Errioxako, Gaztela-Mantxako, Aragoiko, Madrilgo edo Kataluniako gaztelu-ene bideak.

Hori dela eta, Talde Popularrak uste du Nafarroak heldu den Kulturako Konferentzia Sektorialean parte hartu behar duela eta proposamen hauxe egin behar duela: gaztelu eta gotorlekuen bideei buruzko autonomia erkidegoez gaindiko plan bat egin dadila, Nafarroak garaturiko proiektua abiapuntu hartuta.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du heldu den Kulturako Konferentzia Sektorialean autonomia erkidegoez gaindiko programa bat proposa dezan, 2012-2015 urteetarako Kultura Plan Estrategiko Orokorraren barruan, Espainiako gaztelu eta gotorlekuen bideak lotu, zabaldu eta turistikoki bultzatze aldera.

Iruñean, 2012ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

F saila:
GALDERAK

Galdera, Sarrigurengo ikastetxe publikoaren saturazioari buruzkoa.

PEDRO RASCÓN MACÍAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro Rascón Macías jaunak aurkeztutako galdera, Sarrigurengo ikastetxe publikoaren saturazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Pedro Rascón Macíasek, Legebiltzarre-

ko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Sarrigurengo ikastetxe publikora doazen neska-mutikoen gurasoak ikastetxearen saturazioa ari dira salatzen. Esaten dutenez, ikastetxeak 2014-2015 ikasturtean ezin izanen ditu neska-mutiko guztiak hartu.

Muturreko egoera horren aurrean, hauxe da gure galdera:

Hezkuntza Departamentuak ba al du asmorik ikastetxea premiaz handitzeko?

Iruñean, 2012ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Pedro Rascón Macías

Galdera, irratidifusio soinudunaren ikus-entzunezko komunikazio zerbitzua emateko lizentziak banatzeko epea luzatu izanari buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, irratidifusio soinudunaren ikus-entzunezko komunikazio zerbitzua emateko lizentziak banatzeko epea luzatu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jacak, Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko araudiak dionari jarraiki, Juan Luis Sanchez de Muniain kontseilari jaunari honako galdera helarazten dio, Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetarako Batzordean ahoz erantzun dezan.

Ezagutu berri dugu 83/2012 Foru Agindua, Nafarroako Foru Komunitatean maiztasun-modula-

tuko uhin metrikoen bidezko irrati-hedapeneko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua emateko 44 lizentzia emateko lehiaketa publikoa ebazteko epea luzatzen duena.

Zer dela eta luzatu du Nafarroako Gobernuak beste sei hilabetez lizentzia hauek emateko epea?

Iruñean, 2012ko irailaren 27an

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, Ledeako zubian ibilgailu astunak igaro ahal izateko errehabilitazio-lanak amaitu arte aurreikusita dagoen jarduketa-egutegiari buruzkoa.

KOLDO AMEZKETA DÍAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Amezketa Díaz jaunak aurkeztutako galdera, Ledeako zubian ibilgailu astunak igaro ahal izateko errehabilitazio-lanak amaitu arte aurreikusita dagoen jarduketa-egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Amezketa Díazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Sustapeneko kontseilari Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak Legebiltzar honi iragan abuztuaren 16an igorritako komunikazioan, 2012ko maiatzaren 28ko aurrekontu-aldaketa baten berri eman zuen –Sustapen Departamentuaren 220/2012 Ebazpena–, zeinaren bidez 837.744,81 euroko zenbatekoan zabaltzen baita 610006-61100-6010-453202 kontusaila (Bide-sarea hobetzea eta Errepide Planeko jarduketak), diru-sarreretak 610006-61100-7700-000000 kontusail sortu berriaren bidez finantzatzeko (Diru-sarrerak, azpiegituretak ekarpen estetiko osagarria). Aldaketaren arrazoia zen "(...) Ledeako zubia premiaz zaharberritu beharra, ibilgailu pribatuak bertatik igarotzeko (...)".

Iragan 25eko agerraldian ez zenuenez zehaztu zer datatan egin nahi den jarduketa hori, ondoko galdera egiten dizut:

Zein da Ledeako zubia ibilgailu astunak igarotzeko zaharberritze-obra bukatu arte aurreikusita jarduketan egutegia, iragan maiatzetik aitzina aurrekontu-kontusaila baitu? Arlo horri buruzko nire ezjakintasuna aitortuta, azal al diezagukezu zein den "ekarpen estetiko osagarria" izendapenaren esanahia?

Iruñean, 2012ko irailaren 27an

Foru parlamentaria: Koldo Amezketa Díaz

Galdera, Prestazio Handiko Trenaren zerbitzua “behar” duten Nafarroako enpresei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Prestazio Handiko Trenaren zerbitzua “behar” duten Nafarroako enpresei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

rreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Gobernuko lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilari Lourdes Goikoetxeak, 2012ko irailaren 20an egin zuen agerraldian adierazi zuenez, "Nafarroan enpresa asko ditugu Prestazio Handiko Trenaren zerbitzua behar dutenak".

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

- Nafarroan Prestazio Handiko Trenaren zerbitzua "behar" duten enpresen zerrenda.

- Enpresa horietako bakoitzak zertarako behar duen, eta tren horretaz egin behar duten erabilera-zenbateko kuantifikatua.

Iruñean, 2012ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroan izandako zirkulazio istripu kopuruari buruzkoa.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan izandako zirkulazio istripu kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Lehendakari, Justizia eta Barne Departamentuak idatziz erantzun dezan:

- Nafarroan azkeneko hiru urteotan izandako zirkulazio istripuen kopurua, urteka zehaztuta, eta, halaber, zehaztuta zein puntutan diren eta zerk eraginda.

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Galdera, TRENASak aurkeztutako enplegu-erregulazioko espedientea, 58 lanpostu deuseztatzekoa, saiheste aldera Nafarroako Gobernuak CAF taldearen aurrean eginen dituen jarduketei buruzkoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, TRENASak aurkeztutako enplegu-erregulazioko espedientea, 58 lanpostu deuseztatzekoa, saiheste aldera Nafarroako Gobernuak CAF taldearen aurrean eginen dituen jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Martxoaren 14an, Parlamentuan agerraldia egin zuen Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak, eta, Castejongo Trenasa enpresak 91 lan-kontratu eteteko aurkeztu

zuen enplegu-erregulazioko espedienteari buruz, honakoa esan zuen:

"CAFekin ere, jakina, hitz egin dugu, eta haiekin kontaktuan gaude, planta hori kontuan izan dezaten, eta planta hori, uneotan, I+Gko proiektu batzuekin eta produktu berriekin ari da, eta 2013rako lana ziurtatuta dago".

Hala ere, enpresak, irailean, 58 lanpostu kentzeko espediente bat aurkeztu du; langileak, guztira, 120 dira.

Horrenbestez, hau jakin nahi dugu:

– Zer jarduketa gauzatu behar ditu Nafarroako Gobernuak CAF taldearen aurrean, saihesteko Trenasak 58 lanpostu deuseztatzeko aurkeztu duen enplegu-erregulazioko espedientea, eta lan-zamarekin jarraitzeko?

– Zer informazio zuen Nafarroako Gobernuak esateko Trenasak 2013an ziurtatuta zuela lana?

– Izan al da akordio edo konpromisorik Nafarroako Gobernuaren eta Trenasaren artean, lanean jarraitzearen eta enpleguari eusteari inguruan? Halakorik izan bada, zer akordio edo konpromiso dira?

– Zer laguntza eman dizkio Nafarroako Gobernuak Trenasari? Exijituko al dio Nafarroako Gobernuak enpresari laguntza horiek itzultzea, kalera-tzeak azkenean gauzatzen baditu?

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, Espainiako Estatuko abiadura handiko plataformen bidezko salgai-garraioari buruzkoa.

KOLDO AMEZKETA DÍAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Amezketa Díaz jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Estatuko abiadura handiko plataformen bidezko salgai-garraioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Amezketa Díazek, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuak Sustapeneko kontseilari Luis Zarraluqui Ortigosari, idatziz erantzun diezaion:

Salatu duzunez parlamentari honek ez duela gaitasunik jakiteko abiadura handiko plataformen bidezko salgai-garraioaren errealitatea, informazio hau helaraztea eskatzen dizut:

Zenbatekoa izan den Espainiako estatuan abiadura handiko plataformen bidezko salgai-garraioa urteotan: 1992, 1993, 1994, 1995, 1996, 1997, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007, 2009, 2010 eta 2011. Urtean-urtean zer tona kopuru izan den adieraztea nahi da.

Iruñean, irailaren 27an

Foru parlamentaria: Koldo Amezketa Díaz

